

AMAIKAGARREN MENDEKO IDAZKIETAN EUSKAL-IZENEN IDAZKERA (II)

Jarrai dezagun 1025'gn urteko larrukiaren azterketa. Larruki hereizia, bertan agertzen bait da lenengo aldiz edestiaren orrietan Gipuzkoa'ren izena.

Bertan agertzen da, baita're, Gipuzkoa'ko lenen Jaunaren izena: Garcia Azenariz.

Ez da larruki luzea. «Karmel» aldizkari onen orrialde batean aisa ta errez sartu bait daiteke guzia.

Ez da larruki luzea, baiñan bai naasia ta ulerkaitza. Gipuzkoa'ri buruz artarañoko garrantzikoak dalako, askok izan da astiro ta sakonki aztertua ta ikertua (1); baiñan, iñork ez, erreztua ta argitua.

Gipuzkoa'ko erri-izenen sorta polita damaigu; naiz, askotan, geienetan, izen oiek, gaurko zein erriei dagozkien jakitea, askabiderik gabekok korapilloa izan, oraindik beintzat.

Lenengo larrukia galdua da, ez dakigu noiz, eta lenengo larrukiaren kopi edo aldaketak dira gaur erabili dezazkegunak. Aldaketa oiek XII mendez onuntzakoak dira, eta aski ugariak gainera, eta ez oso bata-bestearekin berdiñak.

(1) GONZALO MARTINEZ DIEZ josulagunak azkena: «Guipuzkoa en los Albores de su Historia (Siglos X-XII)». Liburu ortan aurkituko duzu beste ikerlarien aipua.

Larrukiaren mamia OLLAZABAL'ko SALBATORE DONEAREN emaitza da. Izen ortako lekaidetxe ura, Peña'ko Donibane Batailariaren Lekaidetxeari ematen zitzaiola egiztatzeko idatzia izan bait zan gure larruki au.

Emailea, Gipuzkoa'ko Jauna, -Garcia Azenariz-, eta bere emaztea, -Doña Gayla-.

Apaña du sarrera: «Sub nomine Sancte Trinitatis, ego quiden senior Garcia Azenariz et domina Gayla, pro remedio anime nostre, tradimus Deo donante ad monasterium Sancti Iohannis Baptiste de Pinna, illud monasterium quod dicitur Ollazabal»:

«Irutasun Donearen izenean, nik Garzia Azanarena'k eta Andre Gaila'k, gure animen osasunerako, Peña'ko Donibane Batailariaren Lekaidetxeari damaioгу, Jaikoa lagun, Ollazabal deritzan Lekaidetxea».

Gero, aipatutako errien izenak datoz; erri oiek, itxuraz, Ollazabal'ko lekaidetxearenak bait ziran, eta zituen aberastasun guztiekin eman bait zuten Garzia'k eta Galga'k lekaidetxe ura.

Baiñan erri-izen oiek iru sortatan bereziak datoz:

Aurrenekoan, senar-emaztearenak izandako erriak. Bigarrenan, bi aien seme izandako Munio Garziayz'enak izandakoak. Irugarrenean, Gayla Andrearenak.

Eta laugarrenean, senar-emazteek, dokumentuan datozten erri guztiak, -bereak eta beren semearenak-, batean azken-opaltzen dizkiote berriro Peña'ko abatari.

Asi gaitzen lenen sortako erriak aztertzen:

OLLAZABAL	PINNA	GAHARRAGA
ORER	URTE	ALUIZT
URRE	LASCUREN	AINARTE
AREIZNABAR	ARRANDARI	SANSOIZ
UGARTE	ZUHAZNABAR	OSSAUJO

Aurreneko bi erriak, Ollazabal eta Pinna, aldizkari onen 191'gn zenbakian azterturik utzi genituan. Jarrai dezagun orain beste erriekin.

* * *

GAHARRAGA.- "... illud monasterium quod dicitur Ollazabal cum hereditate sua ut terminabit senior Garcia Azenariz et domina Gayla, des scilice superiore Gaharraga».

Nik ori, -«terminabit», «determinavit», «des» «de», eta «scilice» «scilicet» izango dirala uste izanik-, orrela euskeratuko nuke:

«...Ollazabal deritzan lekaidetxe ura bere ondasunarekin, Garzia Azenarena'k eta Gaila Andreak erabaki duten eran, au da Gaharraga garaikotik asita...»

Ez ordea pentsa, gauza ain erreza danik.

Aurreneko oztopoa, «des scilice» ortatik datorkigu; Ubieto'k «scilice» ori, «Scilice», erri-izena edo giza-izena zala uste izan bait du. Ez dut ukatuko «antziñidazki» edo «paleografilaririk» bikaiñena Ubieto dugula, baiñan arazo ontan atzipeturik ibilli dela esan bearra dut; gauza bat bait da antziñako itzak zuzenki irakurtzea eta beste bat itz oiek zer diran jakitea.

Gaiñera, arazo ontan, nere ustekoak dira larruki au azertu duten beste guztiak.

Llorente kanonigo biurri ospetsuak berriz, «scilice» ori, «SALUE» irakurri zuan: "... de Salue superiore ad gaharraga: «Saluegarai'tik Galarragara». Edo, «Salbegarai'tik, («U» antziña artan naiz «V» bait zan), Galarraga'ra».

Aldaketa ori berak egin zualako? Ez dut uste. Bazan Llorente, idazkiak gezurtiki aldatzeko, mutiko trebea. Baiñan oraingo ontan aldaketa ez da berea; Llorente'k irakurri zuan idaztikoa baizik. Esan dugu ba, ezberdintasunak ugari aurkitzen dirala larruki onen aldaki berezietan. Danadala, «scilice» ez da, ez toki-izena, ez giza-izena, eta Llorente'k ez beste danek, itz ori, «Salue» ez baiña «scilice»

irakurri dute. Bigarren ostopoa, GAHARRAGA ura egon zitekean tokitik datorkigu. Mujika eta Arozena'ren ustez, Gaharraga ori, Aduna zan; edo, beintzat, Aduna'n zegoan.

Egia da Aduna dela Galarraga abizenaren sorlekuetako bat, baiñan, abizen orrek baditu, Kerexeta'k dioskunez, beste sorleku batzuk ere. Gaiñera, Andoain'en ere bada izen ortako etxe bat, eta beste bat Bergara'n. Orregaitik seguruaski, Ubieto'k Gaharraga Bergara'n zegoala idatzi du. Baiñan Elgeta'n ere bada Galarraga: GALARRAGA ERDIKOA. Len toki artan, beste bi baziralaren siñale.

Gaiñera, gure Gaharraga ura ez zitekean Bergara'n egon, Deba ibaiaren araneko erririk ez bait du larruki onek aipatzen. Ezta Urala-Aranekorik ere. Oria-Aranekoak dira danak. Badirudi Garzia Aznarena'ren jauntza ez zala beste ibai oien aranetaraiño iristen. Edo, ziurragoa dana, Ollazabal'ko lekaidetxearen ondasun guztiak Oria-Aranean zeudela.

Aduna ote zan ba gure Gaharraga?

Larruki, onek eskeintzen digun lurraldea Aralar'tik Zاراuntz'en gaiñeko Elkano'ra bitartekoa da. Tolosaldea, beraz. Aduna bera, lurralde orren aski erdian dago. Ez dirudi beraz gauza egokia, errisail ugari baten zerrenda, erdian dagoan errikoxkor batetik astea. Alare larruki ontan errien izenak emengo au orain, orko ori gero, eta bien erdian, askoz aruntzagoko ori, naas-naas, erarik baldarrenean ipiñiak daudela esan bear dan gauza da; eta orrek asko zailtzen du antziñako erri aiek gaur-egungo Gipuzkoa'n zuzenki tokiratzea.

Aitor dezagun ba, eskier ez dakigula Gaharraga ura non zegoan. Aduna'n edo Andoain'en egotea, baleikela. Eta, ziurki, Oria ibaiaren araneko erri bat zala.

Edo... baserri bat, bearbada. Larruki ontako izen guztiak errien izenak ez izatea, izan daitekean gauza bait da.

* * *

Gaharraga'ren «H»-ari-buruz zer esan?

Zazpi toki izen damaizkigu larruki onek «H»-z idatziak; eta bi done-izen: *Johannis* eta *Jhesu*. Bi izen auek, lateraz, «H»-rik gabeak dira; baiñan erdiaroko idazkietan oso-oso maiz ikusiko dituzu «H»-z jantzirik.

Toki-izenak berriz, autxek ditugu: *Hezizaual*, *Haralarre*, *Hezizagaray*, *Zubaznabar*, *Haya*, *Helcano*, eta gure *Gaharraga* au. Aztertuko ditugu banaka-banaka, «H»-oien zergaitiak.

Gaurko gure «elbatuazaleek» larruki ontako beste izen batzuk ere, «H»-z idatziko zituzten, orduan bizi izan balira: *Ubate*, *Harzagudun*, *Abinarte*, *Hareitznabar*, eta *Harrandari*; baiñan XI mendeko lumalari ark, «H»-rik gabe idatzi zituan. Euskal-literaturan «H» baiño gauza zoroagorik ez bait da. Beste literaturetan ere, jakintsuek, gero ta geiago ari dira, aoskatzen ez diran «H»-ak kendu bearrak dirala esaten.

Gaur-egungo giroan bizitzen jarraitzeko eragozpenik aski baduan euskera gaixoak ere ez zuan, ez orixe, berez naikoak dituan zailtasunen gaindik «H»-aren alperrikako zailtasuna astun orren bearrik.

Idazlan ontan, guk larruki ontako «H»-ak aztertuko ditugu.

Gaharraga itzak erdian daraman orrek berriz, ez du azterketa neketsuegirik eskatzen. «H»-ori «L» bat bait da: GALARRAGA.

Ori..., -len ere esana dedan bezala, antziñako euskaldunek «LL» doiñua guk baiño askoz geiago erabiltzen zutelako-, idazle zaar arek, *Gaharraga* ez baiña GALHARRAGA idatzi izan nai ez ba'zuan Gallarraga adierazteko.

Gaur bertan ere, badugu GALLARAGA bat Erandio'n, mendi baten izen lez. Eta «galar» aurrizkian «L» ez baiña «LL» daramakiten toki izen eta abizen asko: *Gallarta*; *Gallarza*; *Gallarzakogorta*, *Sodupe'n*; *Gallaregi*, an bertan; *Gallartu*, *Orozko'n*; *Gallarret*, *Laburdi'n*; *Gallarte*, *Naparroa'ko Abaigar'en*; *Gallartza*, *Larrabezu*, eta *Ortuella'n*; *Gallarri Berri*, *Azpeiti'n*...

Etimologiari dagokionez, GALLAR edo GALAR ori zer dan jakitean dago koxka.

Koldo Mitxelena'ren ustez «Galar» ori «rama muerta en el mismo arbol», omen da.

Oker dabil Mitxelena. Egia, «galar», zugaitzean bertan usteldu-tako adarra badala; baiñan itzaren zentzu orrek ez du balio toki izenen eta abizenen aurrizki edo atzizki izateko. Ez du ortarako gaitasunik aski. Gure toki-izen eta abizenen aurrizki eta atzizkiak, izenen zertasuna zeatz eta argi adierazteko zaikie izenei erasten, eta Koldo'k ontzat artzen duan «galar» itzaren zentzu orrek ez du ortarako balio.

Baiñan «galar» itzak badu beste zentzu bat ere, «Jurrean zulo bat egiñaz egosten den gaztain-ikatz».

Azkue'k ez digu esaten ikatza beraz gaiñera, «galar», ikatz ori egosteko egiten diran zuloak dauden lurra ere badan. Orrela balitz. Zulo oiek dauden lurrari edo zulo aiei beraiei GALAR esango bailitzaie, zentzu orrek balio luke gure izen auen etimologia azaltzeko.

Baiñan ez danena! GALAR Laburdi'ko eta Baztane'ko euskera-ren itza bait da. Gure izen oietatik geienak berriz... Baztan'dik eta Laburditik aski urruti egon geienak!

Iparraldean beraz, *Galarza*, edo *Gallartza*, «ikatz-zulotegia» izan daiteke. Baita, «gaztain-ikaztegia» ere.

Lopez Mendizabal'en ustez, *Galar*, «aiar»-en aldakuntza da. Eta, AIAR ori, gaztelerazko «brezo». Guk, «brezo», txillar esaten dugu; beste batzuek, illar, iñar, edo aiñar.

Gure Lopez Mendizabal'dar Isaka'k diona egia balitz, galartza, «txillardegi» izango litzake.

Baiñan ez dut uste «galar», «aiar» biurtu daitekerik. Gaiñera, gure iztegietan, «aiar» itzak ez du zentzu ori. Aiar, Benabarra'n, deabruari esaten zaio! Eta... ez al dira noski gure Galartzak eta Gallartzak «deabru»tegi izango!

Zure baimenarekin, irakurle, ausartuko nintzake ni, beste etimologi bat aurkeztera, naiz arri labaiñean erortzeko bildur aundiz.

«Galar» ori... ez ote da «garolar»en laburpena? Itz alkartuetan aurreneko itzaren azken «o» ori, «u» oso errez biurtzen bait da. Era ortan, «arto-buru» artaburu dugun bezala; eta «asto-buru» astaburu, edo «mando-zain» mandazain, ala «garo-ate» garate ditugun bezala, «garo-lar», *garolar* izango genuke, eta, «*galan*», «garalan»en laburpena.

Zuzen ba'nago, Gallartza edo Gallartza batzuk «garolartza» izango litzake: «lugar de helechales» gazteleraz.

ORER.- Aztertu-berri dugun Gaharraga'ren atzetik dator, eta, alor, baserri, baso, ala erri, ORER ura zer zan ez dizu ifork era ziurrean esango.

«Ore»z asten diran erri eta giza-izenak baditugu: *Oreitia* eta *Oreniz* adibidez Araba'n; *Orella*, Araiz'ko auzo bat, Naparroa'n; *Orexa*, «Orixe» olerkariaren erria, Oreila'tik ez urruti, Lizartza'ren gainean; eta Ollazabal'ko lekaidetxe zegoan Altzo'tik urbil *Orendain*, ongi toki politean. *Oreribia* abizena, Mitxelena'ren ustez «el vado de los ciervos» = «Oreir-ibi-a», ederki izan omen daiteke: «puede muy bien ser». Ortarako, *Oreria*'ren «orer» ori, «oreir» biurtzen du, gero, «oreir» au «orein», «ciervo», dala esateko. Etymology-fiction! Itxura utsezko etimologigintza! Ez bait dut uste, «orer» «orein» izan daitekeanik.

Gaizki idatzitako Orendain ote dugu ba, larruki ontako ORER ori? Larruki onek, ezpairik gabe, izen asko bait ditu gaizki idatziak. Entzun zer dion, okerkeri oiei-buruz, idazki au aztertu zuan Manuel Agud'ek, seguruaski, okerkeri auek lenen-idazlearenak ez baiña, gero larrukia bir-idatzi zutenenak dirala jakinarazi ondorean: (Respecto a los nombres propios hay que afirmar) «que si en aquellos primeros tiempos en que se escribieron no cabría dudar, porque es de suponer una lectura final del contexto, sí en las

sucesivas copias, por desconocimiento, tanto de la lengua como por dificultades paleográficas, se deslizarían esos errores que hacen incomprensible el documento que nos ocupa» (1).

Barka dezaigun Agud jaunak oartxo-sail bat:

- «Okerkeriz beterik», gure larruki guztiak daudela.

- Aurrena idatzitako larrukiak ia-ia-ia danak galduak dirala. Orain ditugunok, galdutako aien aldaketak dirala.

- Okerkeririk geienak ez dirala aurreneko lumalari aiek egiñak, geienak beintzat; aurreneko aiek euskaraz bai bait zekiten. Ez ala, gero etorri ziran kopista edo bir-idazle aiek askotan.

Baiñan larruki oni-buruz berak, -Agud'ek- damaizkigun arrazoiak ez dutela balio. Peña'ko lekaidetxean egindako bir-idazketei dagokienez,

a) «Dificultad de lengua» rik ez zalako, XII mendean Aragoi'en euskera besterik egiten ez zan eskero. (Ots: egiazko Aragoi'en, Alkubierre mendi-katez iparreruntz dagoan lurraldean).

b) «Deficuldades paleograficarik» ez zalako, XII mendean XI mendeko idazkera «paleografia» edo «antziñidazkera» ez baiña aski «neografia» edo «idazkera berria» bait zan oraindik.

Alata guztiz, egia da bazala orduan Aragoi'en eta Euskalerrri osoan idazkerari-buruzko arazoa: Bisigotarren idazkera eta Frantzi'aldetik etorrira, «carolingia» edo Karlomagno'ren omenez «karlatarra» esan oi zitzaion idazkeraren arteko naasketa.

Arrazoi du, alare, Agude'k onako au dionean: «A pesar de la evidente corrupción del texto, este responde a una realidad confirmada por otras donaciones» (2).

(1) Manuel Agud: «Donación del Monasterio de San Salvador de Olazabal (Guipúzcoa, año 1025)», Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 24 (1968) 323-339.

(2) Ibi.

URRTE.- Orrela, bi «RR»z idatzia. Zer zan ez dakit. Non zegoan ere ez. *Urto*, Berestagi eta Leiza'ren artean, Gipuzkoa'ren eta Naparroa'ren muga da. Altzo'tik aski urruti, larruki ontako URRTE izateko.

(Oroituko zera, irakurle, Altzo Beekoa, Ollazabal'ko lekaide-txea zegoan erria dala).

Urto'ren azkeneko «O» ori, atzizki toki-adierazlea dugu. Aurreko «urt» ortako «t», izki «eufoniko» edo doñu-edergaillu bat izan daiteke. Ta? «Ur»? «Ura» bearbada. Edo urritzaren zitua: «Urta». Ortaz, *Urto*, *batzuetan*, «ur-toki» edo «ura dagoan tokia» izango da. Beste batzuetan, «urr-toki», «urrak edo urritzak ugari diran tokia». Arazo bakoitzean izenaren edo abizenaren tokiari so-egin bear, bata edo bestea dan jakiteko.

Berastegi eta Leiza arteko URTO'n ez dago beintzat ur geiegi. Beotibar deritzan errekatxoa igarotzen da andik. Ez ur-jario aundi-ko ibaitxoa! Baiña, alata guztiz, ola-lanari bizi ematen diotenetan lenengoetako bat bere ur-etorri txikiaren neurrira.

Urto au, beraz, «urritz-toki», ezanen da seguruaski.

Gure larrukiak ordea Urto ez baiña URRTE ematen digu. Bada *Urteaga* abizena. Eta baita *Urtesabal* ere. Abizen zarra, Isasti'k 1625'an aipatzen duana.

URTE oietan, lengo URTO ortan bezala, aurreneko «ur» ori, edo «ura» edo «urra» dugu; eta, «te» atzizkia, ugaritasun-adierazle bat. Beraz Urte onen etimologia, lengo Urto orren berdiña da. Batzuetan, denbora ere adierazten digu atzizki orrek: «erromate» = «erromatarren aroa».

«Aunque este sufijo («te») existe en la lengua, no es ni mucho menos segura su presencia en nombres de lugar y apellidos», dio Mitxelena'k.

«Segura», Koldo, oso gauza gutxi duk, etimologiaren baratzan. Altaguztiz, eguneroko itzetan ere «te» zer dan erriak bazekik: «Denboraz» gaiñera, «ugaritasuna» ere esan nai dikela. Orrela,

adibidez, «elurte», «eurite», «gosete»-«izurrite» itzek zer esan nai duten ederkitxo ezagutzen dik erriak. Edo «urte», eurijsa ugaria, «agua-cero», edo «ugalde ugaria», «gran riada».

Gaiñera, «ti» atzikia, «te»-ren aldakuntza izan daiteke... eta da, seguruaski. Eta «ti»-k askotasuna esan nai duala, «di» bere aldakuntzak bezala, gauza jakia dugu: «sagasti», «zumardi»; «urrizti»; «urrezti»; «Arrite»; *Arrate*, agian; nere ustez txiroz Eibar'ko Arrate «ar»-«a»-«te» bait da, eta ez «ar»-«ate».

«Ar»-«te», «arrite», erdian «a» eufoniku edo edergaillu bat duala; eta ez «ar»-«ate», «puerto de piedra», an «portu» edo «aterik» ez bait da. «Arrite», beraz. Are geiago, Eibar'ko Arrate'ri, len «Arrarte ere esan zaiolarik!

«Ur» aurrizki lez duten izenak asko ta asko ditugu gure Euzkadi guzian: «Urrexola»; «Urresola»; «Urrestilla»; «Urrelo», (Erronkari'ko abizena); «Urrestarazu» («Umandi» euskal-idazle jatorraren abizena); «Urta» (seguruaski «Urte»-ren aldakuntza, «a» eta «e» errez alkarren artean aldatzen bait dira); eta Laburdi'n, «Urt», (errizka baten izena, gure «URTE»-ren laburpena).

Lopez Mendizabal'dar Ixaka'ren ustez «ur» ori «ura» eta «urra»-z gaiñera, «uru»-ren aldakuntza ere izan omen daiteke. «Uru» berriz ira, garoa, dala dio. Ez dakit nondik atera duan ori. Uru, Laburdi'n, hasapizti egaztijale baten izena da. Beste toki batzuetan katagure esaten zaio. Gazteleraz, garduña.

Ez dut uste gute toki-izen eta abizenekin zer ikusirik baduanik.

ALUIZT. - Toki-izen orren atzetik beste toki-izen bat dator larrukian: URRE. Askoren ustez, -geienen ustez-, bi izen oiek alkarturik irakurri bear dira: ALUIZTURRE. Eta Aluiztorre ori, gaur-egungo ALBIZTUR omen da.

Ori egiztatzea zaila dan bezain erreza da, ordea, ori esatea. Ikus nola datorren larrukian:

«... Albizt Urre super Lascuren de alia parte inferiore...»

Euskeraz: «Albitz Urre Lakuren-gaiñean azpiko beste aldetik...»
Esaldi ulerkaitza benetan. Baiñan larruki au arras ulerkaitza dala,
Gorosabel'ek joan dan mendean idatzirik utzi zigun.

Gaiñera: Bi izen oiek batera alkaturik Albiztur irakurri bear
ba'dira Albiztur ez dago «super», «gaiñean», bere inguru guztiaren
azpian baizik. «Super Lascuren», Laskurer-gaiñean» dagola Albizt
Urre, dio larrukiak; baiña orrek ez du zentzurik, *Lacuren* ori gaut-
egun *Laskurain* deritzan baserria ba'da.

Baserri ori, Tolosa'n dago. Urrutegi Abiztur'en gaidik dagola
esateko. Agud'ek dionez, an Albiztur-aldean, izen ortako baserri
bat bai omen da; baiñan Albiztur baserri orren gandik egon
bearrean, «super Lascuren», bera omen dago Albiztur'en gaiñetik.

Baserri ori badala, ez dakit nondik atera duan Agud'ek. Nik ez
dut ezagutzen. Ezta Linazasoro'k ere, nik aipatutako bakarrik
aipatzen bait du berak ere.

Nere uste apalez, *Albitz* eta *Urre*, ez dira *Albiztur*. Ez dira
baturik artu bear, bereizirik baizik: *Albitz* eta *Urre*.

Batean artu nai izate ori, larruki ontako izen guztiak errien
izenak dirala uste izateak sortu du.

Nik ordea, geienak, erri-izenak ez baiña, basarri, soro, alor eta
basoen izenak dirala esango nuke. Larrukiak berak izen bat baka-
rrik, HAYA, ematen digu erri-izen bezala; eta ori, «villa» itza,
erromatarren garaien bezala, «nekazaitxea» adierazteko ez ba'da-
rabilki! Ez dezagun aztu, idazti au lateraz egiña dala.

Beraz, banaka aztertu beariko ditugu bi izen oiek: *Albitz* eta
Urre.

Utzi dezagun ordea eginkizun ori datorren egunerako, gaurkoz
luze goaz-eta.

Latiegi'tar Bixente